

r tz z n
l r t k
l n r r z t n...

Ik r t sun k r t n r n m k n r r

M t z r k
s r z r k
H s k m z t k k
H r r l u k
t r t u r r k
S l r k
s r r k...

Ik r t sun
N k z l k r t k r t
U r t l n j s t r l 12
T h . / / F x 33 111
2 17 USU G uz k
Ik 1 sun osur 12 m

Udarregi Ikastolak

ENJOY ENGLISH

ingelerako udalekua
eskaintzen dizu



- Ingelera era anitz eta dibertigarrian ikasteko aukera: joko, irteera, antzerki...
- Irakasle natiboak eta ikastalde txikitan.
- Udarregi ikastolan.
- Ekainaren 29tik uztailaren 26ra.
- Goizean: 9:00retatik 13:00era.
- Bi talde: Bata, HH3, LH1 eta LH2ko ikasleentzat; bestea, LH3, LH4, LH5 eta LH6ko ikasleentzat.
- Irakasleak: Monitore natiboak.
- Prezioa: Ikasle kopuruaren arabera (g.g.b. 280 €).
- Irakaslea bere etxean hartzen duenak, dohain.

OHARRAK

- 1.- Izena emateko epea: martxoaren 18a arte. Udarregiko idazkaritzan (Tel: 943.361216).
- 2.- Monitorea egoteko etxerik ez balego, udalekua bertan behera geratuko da. (Bi monitore direnez, bi etxe).

**ABERASTU ZAITEZ!
EGIN ZAITEZ BAZKIDE**

Bazkideetza eskaria

Izen abizenak: _____ Jaiotza data: _____
 Herria: _____ Adina: _____ Sexua: _____
 NF. zenbakia: _____
 Helbidea: _____
 Posta Kodea: _____ Herria: _____
 Tel: _____ Zuzen: _____
 e-maila: _____

Bazkide izateko:

30€ Urtetako karbu-kartontzeki kopiatutako da

Ordainketa modua: (karbu urteko bala)

Darkestea:
Kartu-kartontze jendakia [77] eguneko neurria

***Informazio gehiago:
943 360 321**

Za to z!

Txirrikitutik !

Usurbilgo Udaletxea 1907. urtean erren eta zoritxarrez gaur egun bertan ez dago 1907az aurreko dokumenturik. Argazki hau aldiz, erre aurrekoa da eta gaur egungoarekin antz handia duen arren, goialdea desberdina dela garbi ikusi dezakegu. Jaso ditudan datuen arabera, garai hartan herritar gehienek udaletxea uste gabeen edo istripuz ez zela erre pentsatzen omen zuten, hau da, apropos erre zutela. Orduan ere agiriak ezkutatzea edo desagertaraztea komeni zitzaionen bat izango zen... beraz, halakoak ez dira berriak.

Zalao Arnaiz Ibarguren



Egilea: Ezezaguna, 1907. urtean sua hartu aurretik, Kaleberri
Jabea: Kutxa Fototeka

N u !

Argitaratzailea: NOAUA! Kultur Elkartea
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil (Gipuzkoa)
Tlf: 943 36 03 21 / elkartea@noaua.com
www.noaua.com

Koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Publizitatea: publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Oxkar Santamaria, Maria Angeles Arruti, Maria Jesus Urbiet, Jone Eizmendi, Ekiñe Olaizola, Iñaki Labaka, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfonso Vidal, Alazne Begiristain, Ana Urdangarin, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Eneko Harreguy, Salome Portu, Pello Aranburu, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Eukene Kamino, Aloña Pulido, Isaak Muñoz, Olatz De Miguel, Iñaki Agirresarobe. Denborapasak: LUMA, O.E.

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

Bazkidetza: Aitziber Aranberri.

Erredakzio Kontseilua: Imanol Ubeda, Zalao Arnaiz, Maialen Saez, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonbieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza.

NOAUA! hamaboskariak ez du bere gain hartzen aldiakarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

NOAUA! Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia:
10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

AZALA

Korrika eta NOAUA! lotuz, Zalao Arnaizek osatu duen azala


Aurkibidea

ZUTABEAN, AITOR LANDALUZE _____ 4. ORR.

BERRIEMAILEAK KALEJIRAN _____ 6. ORR.

TRENBIDE SAREA HIZPIDE _____ 10. ORR.

Trenbide sarea aldatzeko proposamena egin du Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herri Lan Sailak. Proposamena erakusketa publikoan da.



HERRI ANTZERKIA EGINGO DA EKAINEAN _____ 11. ORR.

ORIAKO JEITSIERAN, ORIO NAGUSI _____ 12. ORR.

HIRU TXERRITXOEN IPUINA BERTSOTAN _____ 14. ORR.

EUSKARAZKO KARTA, MESEDEZ _____ 18. ORR.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldiakaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldiakaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!

Zutabea !



AITOR LANDALUZE

Requiem Ugarte

Lehenago, igandero egiten zuen bezala, elizara joan da. Bere Lgaixotasunarena herrian zabaldu zen ezkeretik, erabakia zuen bere txokotik ez ateratzea. Hala ere, bere txikizioarena onartzen hasi denean, chunka urteek sortu ditzaketen bekatutxoek gogoratu eta zeruan ate bila ibili beharraren beldurrak bultzatuta, elizara joatea erabaki du. Leihotako hirurogeitapiku kristalak garbitzen saiatu da, atariko armiarma sareak kendu, teilatu gaineko teilak txukundu eta urrats geldo bezain sendoz elizaldera abiatu da. Puntapax zubia pasa eta ezkerretara ez begiratzea erabaki du, "Artzabalgo auzo berriko" chunka leihoen begiradapetik modelo bat pasarelan baino miatuagoa sentitu da. Oinarri dituen harriztar horiek maisuki mugituz ibilera bizitu du eta berehala, Artzabalengana iritsi da. Haraino Gaztañaga ere hurbildu da, betiko lagunak hirurak.

- Zer moduz Ugarte?! NOAUAN! irakurri dugu...

- Zer? "Speculacium inmobiliariensis" gaitzak jota nagoela? Halaxe da, eta zuek biak argi ibili, hurrengoak izan zaitezke eta!

Biak isil isilik gelditu dira, zutabe sendoenak ere dar-dar egiten dien bitartean. Zer esan jakin gabe mezataraino iritsi dira. Gaztañagak eta Artzabalek ezin dute Ugartek esan diena burutik kendu, Artzabalek bere burua kontsolatu nahian edo, museo bihurtuko dutela amesten du, jende guztiak bere egurrezko hezurdura miretsiko duela, bere baitan babeska sentiduko... gauza

baliotsu eta eder gordeko dituela... ametsak. Artzabal gaixoa, hustu zutenetik ametsa besterik ez du egiten.

Ugartek bitartean, aurretik erortzen ikusi dituenak gogoratu ditu; aurrenik bere gaitza berak jota erori zirenak, Eguzkitza, Txaramunto,.... Hauek oraindik ere izena gordetzeak ez du lasaitu; ondoren, "Austopiscitis" jota joan zirenak ere oroitu ditu, eta noski honek ere ez du lasaitu. Oraindik, berari gertatzen zaionik ere ezin du sinistu, hainbeste urteetako historia, hainbeste sagardo ekoiztu izana, hainbesteko berezitasun arkitektoniko... ezerk ez al du libratuko makinaren aitzurra eta palaz? Bere lagun-min taldetxo txiki itxian esaten duten bezala, operatuak ere, inbidiaz gogoratu ditu. Goitik behera berriutakoak, lehengo egurrezko hezurak porlanezkoak orain, harriaren ordez, adreilu, gasa, pvc,.... Noski ez dela gauza bera, nortasunik gabe geratuko dira bai, baina horiek gutxienik irauten dutela pentsatuz, bere ametsgaiztoan murgildu da.

Gaztañagak, oraindik ere bizitzaz beterik, azkar ahaztu ditu pentsamendu ilunak eta Artzabal zirikatzearen, belarrira "Entzun dut Kultur Etxea baino modernoago utziko zaituela", esan dio. Artzabal, berriz, ametsetatik esnatzeak sortzen duen haserrea batetik eta gai honek berez sortzen diona bestetik: "Nik ere, zuri *Corporacion dermoestetico*koak etorri eta Paris baino "operatuago" utziko zaituela entzun dut".

Ainhoa Azpiroz - Aitor Landaluze - Jakoba Errekondo - Luis Aranalde - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregerai

Ika-mika !

Askok nahiko luketen baino eragin handiagoa

Azken asteetan hainbat ika-mika agertu dira NOAUAREN orrietan. Alde batetik, alkatetzaren kargua lotsagabeki lapurtuta duen Luis Mari Ormaetxeak urteetan herriko alkate izandako Joxe Antonio Altunaren aurka jaurtitakoak. Bestetik, hemengo enpresa batek jasadako erasoaren inguruan, bai Ormaetxeak maltzurki egindako nahaste borraستا (Gabonetan presoan alde denda eta enprestat egiten den laguntza eskaera nahastuz), bai inork ez dakien «Sanchez enpresariaren» adierazpenak eta, horiei guztiei erantzunez, herriko bi presok eta beste 21 herritarrek igorritako gutunak.

Kritika politikoa egiteko garaian dagoen talde edo erakundeei egin beharrean, pertsona batengana zuzendu izana koldarke-

riatzat jo daiteke. Baina, batzuen azpi jokoan, urteetan gure proiektu politikoaren erreferentzia nagusienetakoa izan dena -eta izaten jarraitzen duena- kolpatzeak beste helburua ezkututzen duela uste dugu: ilegalizazio guztien gainetik, errepresio guztien gainetik, 18/98+ epaiketa guztien gainetik, presoan borrokaz ETB eta komunikabide askoren ixiltasunaren gainetik, indarrean dagoen ideia eta proiektu bat ezereztatzea, ukatzea, desagerraraztea. Hitz batean, Euskal Herri aske, batua, euskalduna eta aurrerakoiaren proiektua suntsitzea.

Eta hau guztia, alderdikeriak baztertu eta gatatzka behin betiko konpontzeari lehentasuna emanaz, Ezker Abertzalea proposamen eta ekimen ugari bideratzen ari denean. Zer kasualitate! Aho bete hortz demokraziaz,

tolerantziak, bakeaz ari direnak, ohi moduan, kanpokoen jokaerak hitzez salatu baina hamaika lan eta sufrikario jasanez etxea defendatzen dutenei leporatu egoeraren erru guztiak. Urteetan espetxea, tortura, heriotza eta mila atsekagabe pairatzen ari garenok, politika egiteko beren eredu erosoaz izorratzen diegu nonbait.

Argi gera bedi, bada, Usurbilgo Ezker Abertzaleak, Euskal Herri osokoak bezalaxe, euskaldunoi zor zaizkigun eskubideen eta merezi dugun aitortza eta errespetuaren defentsan lanean jarraituko duela, gure aha-legenak, nonbait, batzuek nahiko luketen baino eragin handiagoa duelako.

Usurbilgo Ezker Abertzalea



Urtinea
 I r k - I r l n r k
 L r s r l k - K r k
 San Esteban
 Tlf.: 943 36 22 55



www.noaua.com
 USURBILGO ATARIA



ARRAINDEGIA
PELLO
 Urt: xK I 7
 T13 21
 JSU L

Hemen da Sagarrondotik jaialdia

Martxoaren 4an, berrikuntza nabarmenarekin hasiko da Sagarrondotik'05 jaialdia. Aurreko bi ekitaldietan kultur eta kirol ekimenak asteburu bakar batera mugatzen baziren, aurten, sagardo denboraldiak irauten duen artean iraungo du Sagarrondotik jaialdiak. Hirugarren ekitaldi honetan ere, musika izango da egitarauaren ardatza, propio Sagarrondotik' 05erako Jon Maiak sorturiko dantza, kanta eta bertso emanaldiarekin batera. Egitaraua, sagardo dastaketekin eta Urnietan egingo diren herri kirol lehiekin osatuko da.

Herri arteko kirol desafioa

Martxoaren 6an, Urnietan egingo diren herri kirol saioetan honako ordezkariak izango ditu Usurbilek: Ingudea, Xabier Orbegozo. Harria, Arkaitz Portularrume. Txingak, Iker eta Iñaki Portularrume. Lokotxak, Haritz Urdanpilleta, Aroa Alkorta. Gizon proba, Mikel Aranburu



HERRI KIROL SAIOA MARTXOAREN 6AN EGINGO DA, BAINA URNIETAN.

eta Inaxio Murua. Sagar biltzea, Iosu Errekondo eta Arantxa Usarralde. Zaku lasterketan, Jon Lizaso, Kepa Unanue eta Mikel Soroa. Sokatiran, J. M. Bengoetxea, Idoia Udabe, Arkaitz Portularrume, Jon Lizaso, Kepa Unanue, Mikel Soroa, Xabier Orbegozo eta Mikel Aranburu.

Gogoan izan, sagardoaren kultura sustatzeko asmoz, Usurbil, Astigarraga, Hernani eta Urnietak antolatutako jaialdia dela Sagarrondotik.

Kontzertuetarako sarrerak

Txiribogan salgai

Sagarrondotik 05 kontzertuetarako sarrerak Txiriboga tabernan daude salgai.

-Bi egunetarako bonoa: 30 euro.
-Egun bakoitzerako sarrerak: Aldez aurretik: 18 euro. Bertan: 21 euro.

Talde esanguratsuak

Martxoak 4, 22:30: The Wailers, Kauta, Def Con Dos, Martires del Compas.

Martxoak 5, 21:00: Berri Txarrak, Barricada, Banda Basotti, Marea, Soziedad Alkoholika.



Herri kirol saioa martxoaren 6an egingo da, Urnietan

11:00 ETATIK AURRERA

Zekor bat osorik erreko da aurreko egunetik, eta pintxoan bidez emango da dastatzera. Buruntzaldeko sagardogileen kupelekin mostra txiki bat egingo da eta edalontzia erostean truk, nahi adina edateko aukera izango da. Talogileak, euskal musika...

11:30 EAN, BERTSOLARIAK

Bertsolariak kultur etxeko balkoitik:
- Xebastian Lizaso, Andoni Egaña.

12:30 ETAN URNIETAKO FRONTOIAN

Urnieta - Usurbil - Astigarraga - Hernani herrietako ordezkariak nor baino nor kirol jardunean. Guztira, 8 proba:

TXINGAK

2 lagun. 50 kiloko bi txinga 3 minutuan nork plaza gehien egin.

SAGAR BILTZEA ETA GARRAIATZEA

2 lagun (bat neska). 40kg dituen zakutik sagarrak hustu, ondoren kizkiarekin xestora bildu, xestotik zakura gero, hau itxi eta garraiatu denborarik gutxienean.

ZAKU LASTERKETA

3 lagun. Sagarrez beterik 50kg dituen zakua alde batetik bestera eramán.

INGUDEA

Lagun bat. Nork gehiagotan jo 18kg dituen ingudearekin goiko txapa.

GIZON PROBA

Bi lagun. 5 minutuan nork plaza gehiago egin. Lagun bat gomazko gurpilaren gainean eta bestea hari tiraka.

LOKOTXA BILTZEA

Bi lagun (bat neska). Denborarik gutxienean 25 lokotxa nork bildu.

HARRI JASOTZEA

Lagun bat. 70kg dituen harria nork gehiagotan altxa hiru minutuan.

SOKATIRA

8 lagun (bat neska). Guztien baturak 650kg izan behar du gehienera. Hiru tiralditan erabakiko da garailea.

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Olagandegia - Gozategia

LABE-GOXO

LATAILLADE

ITURGINTZA

GASA
BEROKUNTZA

KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK ETA MANTENIMENDUA

Aritziko Kalea, 6
Uehera

Tel: 943 363 348
Mugikorra: 609 088 021

MIKEL
IZ GI E

ELEKT RIT TE

el 0 6 7
R le
el 0 - 0 0 111

IÑAKI
LABAKA

Txokoalde

Erroizpe elkarteaz

Jakina denez, Erroizpe Elkartek 1995 geroztik, Osasuna etxeko beheko soilarua okupatzen du errenta bat ordainduz, baino iazko ale batean kontatzen nuen bezala aurten galtzen zuen eskubide hau.

Auzoko bazkideak orduan bere urduritasuna agertu zuten, bazkideak eroatera animatuko ez balira, eta azkenean egoitza galduko balitz, bere burua kalegorrian ikusten zutelako. Beste tokira joateko posibilitaterik ez baitago, lokala faltagatik. Zumeta kendu zutenetik, berriz, gure auzoan ez dago tabernarik ezta zaharrentzako egoitzarik ere. Elkartek bete ditu sarritan bi zerbitzu hauek. Auzoko bizilagunek elkarrekin tartetxo bat pasatzea nahi izanez gero, hortxe dute biltzeko toki bakarra. Egoitzari ez bazitzaion heltzen, etorkizuna nahiko iluna ikusten zen Txokoan.

Iazko azken egunetan, elkarteko zuzendaritzako kideak udalarekin harremanetan zirenean herria inplikatu zedin auzoaren beharrei aurre egiteko, etxeko nagusiak elkartearen giltzak entregatzeko agindua bidali zuen. Orduan udala sartu zen tar-

tean eta epe bateko luzapena lortu zuen bertan jarrai ahal izateko. Jabeak etxe osoa saldu nahi du. Udalak berriz auzoko beharrak ikusirik eta ezinbestekoa dela nolabait elkartea mantentzea, laguntzeko borondatea azaldu du eta jabearekin tratuan dabil. Ikusteke dago ze akordiotara iristen diren. Gauza bat ziurtatu du udalak, soziedadeak lokal horretan jarraituko duela. Orain auzokideak lasaixeago daude, etorkizuna argiago ikusten dute.

Gainera, gogoratu udaran betetzen direla 50 urte elkarteak bere aurreneko pausoak eman zituela. Egun hori ospatu beharko da. Bazkariren bat antolatuko dute zihur asko.

Bestalde, ezin bukatu eguraldiaz mintzatu gabe. Marka da aurtengoa. Eguna joan eguna etorri sekulako hotza jasaten ari gara. Gela galanta. Auzoa bizpahirutan txurrituta eta nik ez dut ezagutu inoiz Andatza hainbeste egun segidan elurrarekin. Aste osoa darama hurtu gabe. Pasa den igandean 20 zm.

Izango omen ziren tontorrean.. Bukatuko ahal da noizbait...

IÑAKI
AGIRRESAROBE

Kaleberri

Mugaldekoak

Joan den otsailaren 18an, Berako hirukoteak, "Mugaldekoak" olerki liburuko olerki errezitaldia eskaini zuen Udarregi Ikastolan. Edu Zelaieta idazlea bera, Beñardo Goietxe gitarrajolea eta Raul Garcia armonika jolea aritu ziren ordubeteko saioan. 30 laguneko taldetxoa bildu zen ikastolako aretoan, eta sorpresa izan zen eskaini zuten emanaldiak ikaragarri liluratu baitzuen.

Mugak duen oztopoa eta lilura olerkietan islatu zuten. Alde batetik, garai batean, Bidasoaz bi aldeetan kontrabandistek zuten gaueko lan isilari eskainitako olerkiak ziren. Bertan beraien artean sorturiko hizkuntzak zuen benetako komunikazioa islatu zuten; gaur egun berriz, komunikazio hori globalizatu den heinean, langintza ere galdu egin dela ondorioztatu zuten. Bestalde, gaur egungo mugak haratago joan direla ere ohartazi zuten, "Europa berriarenak" hain zuten.

Musikatua nahiz hitz soilez errezitatua izan zen



saioa, eta beraiek zituzten argitxoekin zegoen oholza apaindua. Giroa intimoagoa egin zuten. Azkenik, gehiegi luzatu gabe, ordubete eskas baten ondoren amaitu zuten denen gozameneko. Hitz batean, olerkia beste era batean ulertzeko bidea erakutsi zuten.

200. garren alea

Kalezar



AINARA
URIBE

Zorionak 200 ale hauetan Kalezargo kronista izan zaretenoi, zorionak noizbehin-ka zer idazteko arrazoiak eta ideiak eman dituzuen bizilagunei, zorionak irakurle denei, zorionak aldizkaria osatzen duzuenoi, zorionak NOAUA!

200 aleak atera izan diren denboraldian Kalezarren aldaketa ugari egin dira, etxe asko berritu dira, eraiki ere eraiki dira, kaleak nagusia zein atzekaldekoak txukun geratu dira paseotxoak egiteko, plaza, parkea, Udarregi ikastola haurtzaindegi eta eguneko zentroa bihurtu da, zihur oraindik baten bati beste zerbaitek egiteko, aldatzeko edo berritzeko burutik pasa zaiola. Baina aldaketa bat impositatu nahi digute, Ugarte baserria botatzearena, halako eraikuntza ederra, auzoan dagoen eraikuntza dotoreena begibistatik kendu nahi digute. Auzoan etxe

asko berritu da, ia denak, baina lehengo itxurari eutsi diote garai hauetara egokituz, ezin al da berdina egin Ugarterekin? Ez naiz jakitun gai hauetan baina nik uste dut egin egin daitekela era honetara.

Ea beste 200 aletan ez duten botatzen ez eta inoiz ere, auzotarrak defenda dezagun gure nor-tasuna daraman etxe puska hori. Egun hauetan kanpotarrak asko etortzen dira sagardotegietara eta beraien lilurarako txundituta geratzen dira Ugarteren parean, horrek arrotasunez betetzen gaitu kalezartarroi, segi gaitezen poztutzen horregatik eta mantendu dezagun Ugarte zutik. Ez gaitzala diru hotsak itxutu!

Bestalde, auzotarroi esan gonbitea luzatzen dizuetela kroniketan parte hartu nahi baduzue edota zuen iritziak, eskaerak, gertaerak... adierazteko. Animatu!!

Errotonda, autobus geltokia eta lokatza

Atxegalde



AINARA
ARNAIZ

Hasteko, kalean bor-bor dabilzan bi gauza haipatu nahi nituzke. Lehenengoa, egiten ari diren errotondaren inguruan hainbat iritzi ezberdin entzuten ari naizela azkenaldi honetan. Batzuek, nahiz eta asko ez gustatu, beharrezkoa ikusten dutenez ongi onartu dute. Beste batzuek ordea ez diote zentzu handiegirik aurkitzen eta bere diseinua ulergaitza egin zaie. Hala ere itxaron egin behar dugu azken emaitza ikusi arte. Bigarrena, autobus geltokiaren inguruan ere teoria ugari formulatu direla eta jende askoren ahotan egon den gaia izan dela. Azkenean, "enigma"-ren soluzioa gure begien aurrean jarri diguten markesinaren eskutik etorri da. Jakinaren gainean ez dagoenarentzat errotondara iritsi baino lehenago, zubiaren albo batean kokatu dute. Non jarri duten ikusita orain bestelakoak izango dira entzungo diren iritziak, nahiko urrutik geratzen baita herriko leku gehienetatik.

Bestalde, errotonda honen inguruan egin dai-

tekeen gauzatxo bati buruzko proposamena egin nahi dizuet. Otsaila atzean utzi dugu dagoeneko eta guztiok dakigun bezala denborak ez du atsendenik hartzen. Behin erritmoa hartuta, ez du atzera bueltarik. Zergatik diodan hau? Harane futbol zelai berriaren obrak garai honetan haste-koak zirela uste genuelako. Baina badirudi ez dugula horrelakorik ikusiko dakozkigun hilabete batzuk pasa arte. Azken hilabete hauetan egindako eguraldi txarrekin hankak lurrean (lokatzetan hobe esanda) edukitzen lagundu digute zelai berri batekin amesten jarraitzen genuen bitartean. Azken batean, zer inportako du ba Usurbilgo hainbat gaztek gustokoa duten kirola praktikatze-ko beharrezkoak eta minimoak diren instalazio-rik ez izaten jarraitzea? Aurten ere Harane Futbol Lokatzean jolastearekin konformatu beharko dugu. Beraz, hementxe doa nire proposamena: Haraneko futbol zelaian biltzen den lokatza errotonda berria nibelatze-ko erabiltzea.

ZALOA
LEOZ

Santutenea

200 alea alajaina!

Dagoeneko konturatuko zineten 200. alea dela eskuartean duguna. 200. alea alajaina! Erraz esaten da baina, egitea da gehiago kostatzen dena. Ni berri samarra naiz NOAUA!ko lan hauetan baina hasiera ere gogoan dut Korreosko bulego haietan.

Izena jartzeko ere gogoan dut nola ibili ginen usurbildar guztiak aztoratuta. Noren etxean ez dira proposamen desberdinak egin? Eta azkenean NOAUA!. Guretzako erraza den izena da baina gainontzeko gizaki guztientzat "NOAUA? ze izen da hori?" usurbildarrak kalean norbait ikustean oihukatzen dugun diosala da.

Zenbat jende ibiltzen zen hango bilera haietan? Auzoko kronistak gogoratzen hasi eta konturatu naiz ez direla hainbeste izan. Akaso kronista gutxien pasa diren auzoa izango gara: Pako, Agurtzane, Alfonso, Agustin, Isaak eta Salome, Alex eta akaso besteren bat ere. Mila esker egin duzuen lanagatik eta auzoko kontuak kontatzea-



gatik. Dena den, auzoko dinamika berria ikusita ea kronista berriak animatzen diren eta erreleboa ematen diegun hasieratik dabilzan horiei.

Eta aurtengo ospakizuna gutxi bada ez ahaztu datorren urtean 10. urtea ospatuko dugula, beraz, dagoeneko ideiak buruan dituenak mahai gainean jartzeko aukera ederra du. Denboraz gauzak egiten hasi ezkerro gerora ere gauza txukuna izango da.

NEREA
AIZPURUA

Urdaiaga

Hasi dira Jai Batzordeko bilerak

Agur bero bat guztioi San Estebango txoko Ahonetatik! A ze negua aurtengoa aizue! Hotza, elurra, izotza... ezer ez zaigu falta oraingo honetan. Andatza, gure zelai eta txokoak txuriz jantzirik ikusteko aukera izan dugu eta, egia esan, xarma edo "toke" berezia eman diote gure auzoari. Hala ere, nahiko arazo sortu dute azken egunetako tenperatura baxu hauek. Gure bideak izotza dela eta oso arriskutsu egon dira eta ondorioz, jendeak nahiko istilu izan du kotxea hartu eta lanera joateko unean. Izotza dela eta askok kotxea bide bazterrean utzi eta pixkanaka-pixkanaka eta kontu handiz oinez jaitsi behar izan zuen. Hala ere, udaletxeokak gatza botatzen aritu ziren bidean eta horrek egoera baretu zuela aipatu beharrean aurkitzen naiz.

Bestalde "tenporak" ez direla oso ondo geratu entzuna dut...eta sinetsi edo ez... denborak erakutsiko du gure Pello Zabalak arrazoi duen edo ez.



Hala ere, aurtengo Aste Santuak gainean ditugu eta ea "fetxa" horietarako eguraldiak laguntzen gaituen.


Eta hauxe izan da guztia gaurkoz... Hala ere, agurtu baino lehen, San Estebango festak antolatzen hasteko komisiokoak elkartzten hasiak gara dagoeneko. Beraz, baten bat animatzen bada azaldu!!

Kirolez kirol

Azken aldi honetan, Aginaga alde honetan kirol ekitaldi oso politak egon dira, pilota partidu garrantzitsuak (Berria txapelketa), nahiz eta herritarrentzat ez diren oso ondo joan, bertatik at geratu baitziren Gernikaren aurka. Hala ere, esan behar, jende gutxi etortzen dela Aginaga aldera hauek ikustera, penagarria benetan!

Bestalde, kirolez aldatuz, pasa den asteburuan Mapildik abiatu ziren aurtengo lehengo estropadak, bertan 31 traineru ateratzen ikusteko aukera izan genuen, tartean gainera herritar dexente arraunari tiraka ikusteko aukera ere izan genuen, gehienak San Pedoren ontzian. Zorte ona lehorrean utzi zuten denbora kaxkar samarra eginez, hala ere, seguru nago aurtengo udan hobeto ibiliko direla eta estropada ederrak eginez, beraiekin gozatuko dugula. Esan behar, gainera, Oriok irabazi zuela Hondarribia eta Castroren aurretik estropadaren marka berria jarriaz: 19:38:57.

Azkenik, hauek ikusita, ea jende gehixeago animatzen den herriko kirolariak animatzera eta seguru emaitza hobekak ikusteko aukera izango dugula!



Aginaga



**OXKAR
SANTAMARIA**

Bide bazterrekoak



Zubieta



**PELLO
ARANBURU**

Ikusten ari zaretena joan den ostiraleko largazkia da. Ez, ez da gure erreka amuarraina. Ezta karramarroa ere. Hori bai, aurtengo ehiza-arrantza sasoiko alerik handiena dudarik gabe –bizilagunak, itsasoan zebilean, harrapatutako txikienak halakoxeak

omen neurrian-.

Hau idazten duenak aitortzen du azkarregi ibiltzen dela askotan Zubietako bidetik. Eta kezka puntu bat izaten du honelakoak ikustean. Ez litzateke gutxi besteren buruan zentzatzeko balioko balio sikiera.

Trenbide sarea aldatzeko proposamena egin du Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herri Lan Sailak


Otsailaren 9an, EHAA (27. zenbakia) EAeko Trenbide Sarearen Lurraldearen Arloko Planaren aldaketa hasieraz onartu zela argitaratu zen. Artikulu honetan irakurriko duzuen moduan, aldaketa honek Usurbil eragiten dio zuzenean. Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herri Lan Sailaren idatzia erakusketa publikoan jarri da hilabetez. Udalak, bere alde-tik, bi hilabete izango ditu nahi dituen alegazioak aurkezteko.

Planean jasotako zehaztapenak ondokoak dira:

e) Aia - Aginaga azpitartea

Proposatutako zabalpen honen lehenengo 450 metroak lehendik dagoen trazan zehar joango dira, eta, ondoren, zubi berria egingo da Olabarriemako senadiaren gainean, bai eta trenbide bikoitzeko 1.237 metroko tunela ere (Aginagako tunel berria edo laburra). Horrela, bada, gaur egungo trazatua 1.511 metro laburragoa izango da. Tarte honetan, trazatua oso bihurtunetsua denez, 215 metrotik beherako erradioa duten hamaika bihurtune daude, eta erradio handiena 385 metrokoa da. Tunelaren ondoren, lehendik dagoen trenbidearen traza berreskuratuko da tar-tearen azken 50 metroetan.

Azpitartearen luzera 1.500 m murriztuko denez, bidaiaren iraupena ere 4,18 minutu murriztuko da, gutxi gorabehera.




f) Aginaga - Usurbil azpitartea

Azpitarte honetan, lehenengo 350 metroak zabaldu egingo dira gaur egungo trazan bertan. Ondoren, hegoaldean, banatu egingo da, eta trenbide bikoitzeko 939 m-ko tunel berria zeharkatuko du (San Estebango tunel berria). Handik aurrera, trazatuak gaur egungo traza berreskuratuko du harik eta Usurbilgo geltokira iritsi arte. Era berean, Oria ibaia gainean lehendik dagoen zubi handitu egingo da.

Trazatu horri esker, trenbidea ez da Txokoaldeko herri-gunetik igaroko (Usurbilgo udalerrikoa da), eta Illumbe

20 eta Torrekua izeneko trenbide-pasaguneak kenduko dira.



8.3.1.3 USURBIL - AÑORGA TARTEA

a) Lasarte-Oria azpitartea

Tarte honetan, lehendik dagoen trazatuko trenbidea bikoiztu egingo da, lehendik dagoen trazatuaren edo ingurabidearen bidez.


Bidaiarien eta merkantzien zirkulazioari begira, tren-zerbitzua hobetu egin behar denez, TAAG jarriko da.

Besteak beste, honako jarduketa hauek egingo dira tarte honetan: goiko lau pasagune egingo dira, lau trenbide-pasagune kenduko dira eta Bizkarreko eta Txikiardiko tunel berriak eraikiko dira.

b) EuskoTren-eko tren-tokiak

Lasarte-Oriako gaur egungo geltokian, EuskoTren-eko tren-tokiak jarriko dira, geltokia zerbitzuz kanpo dagoelako. Horrela, bada, operadoreak erabiliko luke.

Bi nasa tekniko ditu, 1. trenbidearen eta 2. trenbidearen ondoan. Lasarte-Oriako instalazioa Lasarte-Oriako 4. trenbidearen, TAAGren eta 6., 8. eta 10. trenbideen bitartez gauzatuko da.



Martxan da herri antzerkia

45 LAGUN BILDUKO DIRA EKAINAREN 11N EGINGO DEN SAIOAN

Aurtengo ekaina mamitsua izango da. Zumarte Musika Eskolak hogeigarren urteurrena ospatuko du ekainaren 25ean. Baina bi aste lehenago, ekainaren 11n, herri antzerki baten lekuko izango gara. Ibai Esoain, Ixabel Agirresarobe eta Iñaki Agirresarobek idatzi dute gidoia eta dagoeneko hasi dira entseatzen.

NOAUA! Duela bi hilabete herri antzerkian parte hartzeko deialdia egin zenuten. Animatu al zen jendea?

Ixabel. Apuntatzeko orduan, betikoak, gehienak emakumezkoak eta haurrak. Ume askok eman zuten izena, baina helduentzako pentsatuta dago. Baina, azkenean, osatu dugu taldea.

Iñaki. Guztira, 45 lagun bildu ditugu. Batzuk bi paper bete beharko dituzte. Baina dagoeneko pertsonajeak banatuak ditugu eta hasi gara entseatzen.

N. Nondik dator herri antzerkia egiteko asmoa?

Iñaki. Udarregiren ehungarren urteurrena aprobetxatuz, herri antzerkia egin zen duela hamar urte. Herritarrek hartu zuten parte eta kristoren arrakasta izan zuten. Ordutik, hamar urte pasa dira eta ez da ezer egin antzerki munduan. Usurbilen, aldiz, ekitaldiak murriztuz joan dira eta herria girotzeko zoezer egin nahi genuen. Iazko Santixabelen ondoren, antzerki munduko lagun batzuk ikutu nituen, Ibai Esoain eta arreba Ixabel. Abuztuan hasi ginen

gidoia egiten, dokumentazioa biltzen, datuak ateratzen...

N. Iaz, ez zen herri antzerkirik egin Zubietan. Orain dator hauxe. Bitxia da, ezta? Akaso, hau ikusita, zubiatarrak berriz animatuko ote al dira?

Ixabel. Horretarako balio badu, ondo!

N. Zein izango da herri antzerkiaren trama nagusia? Zoezer aurreratu al daiteke?

Iñaki. Komedia bat izango da. Herrian girotua. Auzo eta herri arteko erlazioak kontatuko dira, baina komediaren klabea. Hortik joango da, dena ez dugu esango. Gure buruaz parre egiteko modukoa.

Ixabel. Esketxez, atalka osatuta dago baina denak hari bati lotuta.

N. Ekainaren 11n egingo da eman-kizuna. Zergatik ekaina hasieran?

Ixabel. Santixabel eguna larunbatean tokatzen da. Jaien ondorenean, berriz, ez da girorik izaten. Jaien aurretik, ikasturtea amaitu berrian, uda atarian... Horregatik egokiagoa iruditzen zaigu ekainaren 11ko eguna.

Iñaki. Egun bat horretarako hartu nahi genuen; protagonista antzerkia izango den egun bat.

N. Non egingo da antzezpena?

Iñaki. Eguraldi ona bada, Dema Plazan egin nahi da. Baina giroa arratsaldetik hasiko litzateke. Pertsonajeekin kalejira egiteko asmoa dago.



IXABEL AGIRRESAROBEEK EKAINAREN 11N EGINGO DEN HERRI ANTZERKIAN HARTUKO DU PARTE.

N. Entseatzen ere hasi zarete, ezta?

Iñaki. Udarregi Ikastolan hasi gara lanean. Oraingoan, hasierako entseguak izango dira, aste egunetan zehar.

N. Teknikoki lan handia eskatuko al du?

Ixabel. Muntaija majoa izango da. Arropak eta lortzeko liburuetan kontsultatu dugu. Batzuk eskuz egingo dira, beste batzuk moldatu. Ekipo tekniko bat ere beharko dugu. Eskenatokia, ekipoa, argiak, eskenografia aldaketak... Herriko jendea izango da josten edota margotzen arituko dena. Asmo hori dugu behintzat.

**IGELTSE ITZ
t
INTU**

943 36 20 26
687 95 12 25

**LOLI
IZARRALDE** ilcapaindegi mixtoa
Permanente inteligentea, rizoen kiribilketa
kontrolatuarekin.



Solarium-a, estetika, depilazioa
manikura, manikura frantsesa,
pedikura, eta makilujia.

Zubiaimena, 5b Tel: 943 36 19 71



JOSETXO IKATZETA

Iturgintza

TEL: 943 36 20 26

687 95 12 25

Oria Ibaiaren jeitsieran, Orio nagusi



Oria ibaiaren XI. jaitsieran 38 traineruk eman zuten izena. Bi ibilbide ziren osatu beharrekoak: bata 4.000 metrokoa, Saikolatik atera zena; bestea 6.000 metrokoa, Mapiletik atera

zena. Bi ibilbideak Orion amaitu ziren. Oriok erakustaldia egin zuen eta marka berria ezarri zuen. Iñaki Errastiren Astillerok ere hartu zuen parte Oria ibaiaren jeitsiera honetan.

Elikadura hizpide

Hasi dira elikadurari buruzko jardunaldiak Kalezargo Haur Eskolan. Ekimen honen bidez, elikadura osasuntsu eta orekatu baten garrantzia azpimarratu nahi da. Juan Gondrak eman zuen lehen hitzaldia otsailaren 9an. Datorrena, martxoaren 3an izango da, Blanca Garcia alergologaren eskutik.

Martxoak 3, osteguna: Blanca Garcia, alergologa. Hitzaldia, Haur Eskolako aretoan, 18:00etan hasita.

Apirilak 7, osteguna: Malen Moya, medikuntza naturalean eta nutrizio energetikoan aditua. Jesus Calvillo, Fraisoroko irakasle eta ekoizpen ekologikoan aditua. Hitzaldia, Haur Eskolako aretoan, 18:00etan hasita.

Europako Konstituzio Itunaren erreferendumean, inoizko abstentzio altuena

Hego Euskal Herrian, sekula ez zen hainbeste jende etxean geratu bozketa egun batean. Abstentzioaren batz bestekoa %60,6koa izan zen. Gipuzkoan inon baino gutxiagok bozkatu zuten (%63,2). Usurbilen, gainera, abstentzioaren kopurua altuagoa izan zen,

%66.39koa.

Bozkatu zutenen artean, ezezkoak nagusitu ziren Usurbilen. 1.013 izan ziren Europako Konstituzio Itunaren aurka azaldu zirenak. Aldekoak, berriz, 519. Baliogabeko botoak hiru izan ziren eta, boto txuriak, 28.



al s p stera

Ft z k
 Fl a kklrln
 l s f k z k (IN 2 +)
 r x z r tzu (s - antzki)
 ln nk k (+)
 n t k k k
 Erku - k l k (w - k r l k) uru
 Zur - z k uzl - n

Juan de Garay kalea
 20160 Lasarte-Oria Telf: 943 37 64 24 Fax: 943 37 61 55

G L G
garraioak
 ZABOR BILKETA

TELF: 943 37 01 46

LAUKOTE
 OKINDEGIA
 KAFETEGIA

Muntapax kalaa, 16 beheak
 (Artxabal) - 943 36 00 80

ANDONI PINTURAK
 Fatxada eta
 barnelanetan Espezializatua

C/ Etxeberri, 8
 (kalezar)
 Usurbil Tel.: 943 361 318
 Móvil: 605 702 517

LATXA
 Kizkorre denda

Janari prekozinatua
 Kongelatuak
 Bertako produktuak

Zabiztekoa 2, Usurbil Tel. 605 301 803

Kirola egitearen onurak ezagutzeko hitzaldia

Badirudi gizartea entzule edo hartzaile pasibo izatera behartu nahi dugula. Goi-mailako izarrak gure etxeko sofatik mirestera mugatu behar gara. Luix Mari Zulaika SHEE-IVEFeko irakaslearen hitzak dira. Kirolaren ikuspegi hezitzailea bultzatzen duenetakoa da. Haurrei helburu eskurazinak ezartzeak, kasu askotan, pertsona gisa porrota jasotzera bultzatzen dituela uste du. Martxoaren 16an hitzaldi interesgarria eskainiko du Udarregi Ikastolako aretoan, arratsaldeko 19:30ean. Gurasoentzat, bereziki, garrantzitsua izan daitekeen hitzaldia.

NOAUA! Buruntzaldean indarrean den Eskola Kirola programa ezagutzen al duzu? Bat al dator zure planteamendu nagusiekin?

Luix Mari Zulaika. Buruntzaldean egiten den Eskola Kirola programa (Gipuzkoan lantzen dena, orohar) ikuspegi hezitzaileetan oinarrituta dago. Helburu nagusia, haurren osotasunezko garapenean laguntzea litzateke. Ohitura osasuntsuak sustatu nahi dira etorkizunera eta aisialdira begira. Oinarrizko kirol-kultura zabala jaso ondoren, gehiengoak barneratua izango du kirola egiten jarraitzeko zaletasuna. Aurrerago, ordea, bakoitzak ikusiko du zein espezialitatetan sakondu nahi duen, eta batzuk federatu mailan jarraituko dute.


Beraz, Eskola Kirola programa egokia

iruditzen zait, jarduera horiek partaide guztientzat onuragarriak direlako, inor baztertzen ez dutelako, oinarri komuna lantzen delako, aurrerago espezializatzeko aukera ahalbidetuz, gaitasuna eta motibazioa dutenentzat gerora teknifikaziorako bideak bermatzen dituelako. Aldi berean, haur guztiengan bizitzarako baliogarriak izango diren ohitura osasuntsuak eta balio positiboak garatzeko aukerak eskaintzen dituelako.

N. Gurasoak sentsibilizatzeko asmoarekin antolatu da hitzaldia. Zer nolako ardura dute gurasoek?

L. M. Z. Haurren heziketan (Eskola Kirola baliabide pedagogiko aparta dugu), gurasoen zeregina funtsezkoa da. Gurasoen eragina izugarria izango da: helburu egokiak ezartzen laguntzen, lehenetasunak finkatzen, balio-eskala orekatzen, portaera egokiak indartzen, animatzen, emaitzak eta mugak onartzen, balorapen errealistak izaten, bere gaitasunak ezagutzen, itxaropenak egokitzen, jarduera fisikoa poz-iturri bihurtzen eta ohitura osasuntsu gisa barneratzen, finean. Errealitateak, ordea, maiz bestelako egoerak azaltzen dizkigu. Goi mailako kirola zein goxoki erakargarria den kontuan izanik, iparra galtzen dutela, seme-alabentzako eredu desegokia izatera iritsiz.

Honelako argitalpen, hitzaldi eta lanen bidez gurasoak ohartarazi nahi ditugu kirolak duen aukera hezitzaileaz,



LUIX MARI ZULAIKAK HITZALDIA
ESKAINIKO DU MARTXOAREN 16AN
UDARREGI IKASTOLAN.

beraien eragina zenbaterainokoa den azalduz, helburuak zeintzuk izan beharko luketen adieraziz eta denon artean kirol hezitzailegoa lor dezakegula sinistaraziz.

Hizlaria: Luix Mari Zulaika.

Non: Udarregi Ikastolan.

Noiz: 19:30.

Antolatzaileak: Oiardo
Kiroldegia, Eskola Kirola.



Iaz bezalaxe

Berriz ere, Iñaki Errekondo eta Mikel Arroyo izan dira Aitzaga Pilota Txapelketako garaileak. Aurten, ordea, aurkari sendoak izan dituzte. Unai Loidi eta Harkaitz Portularrume fin aritu baitziren otsailaren 19an jokatu zen finalean. Azkenean, ordea, 22-18 emaitzarekin Errekondo eta Arroyo izan ziren jaun eta jabe. Hirugarren, Esnal aita-semeak izan ziren. Laugarren, Uribe-Bengoetxea bikotea.





Hiru txerritxoak

Ipuina bertotan

Doinua: ai, ai, ai, ai

1) Behin batean txerriak joan ziren lanera materiala hartuta etxetik kanpora jostailu ta goxokik motxilan basora hirurak joan behar etxea egitera



2) Lastozko etxea egiten txikia hasi zen bigarrenak zurezko etxea nahi zuen zaharrena hasi zen adreiluz osatzen hirurak jarri ziren etxea eraikitzen

3) Bi etxeak eginda bukatu ondoren zaharrena zegoen berea amaitzen beste biak bitartez iseka egiten zaharrena lanean besteak jolasten

4) Otsoa agertu zen txerriak jatera putz egin zuen eta etxea lurrera piztia bota zuen lasto pila behera txerria abiatu zen egurrezko etxera

5) Egurrezko etxera txikia sartu zen otsoak putz eginez dena bota zuen piztia atzetikan korrika zetorren adreiluzko etxera lasterka joan ziren

6) Atea ireki eta poztu ziren asko otsoak etxe hori ez zuen botako tximinitikan sartu lapikoa zepo ipurdia erreta joan zen betirako

Egileak: Lehen Hezkuntza, 5. mailakoak

Usurbil Autoak, S. C. L.
Zerbitzu Ofiziala

Zumartegi Poligonoa
Aitzearra kalea, 1
20170 USURBIL

Tlf: 943 36 10 79
Faxa: 943 36 62 92

EUSKAL OKELA

CARRE DE MOURNO
DE CALADA
DEL TRIA VASCO

h k k l , 4
T H 433 6742

LK T
UT ZE ITZU

F IT K
ZKI K
ETXEK IKTU K
K NAEL TU K

I lts r tz

Mugikorra: 649435475
649435476
943 363370- 361439

H n k n Utz n n, s l z

USU ILG H TZ KLINIK

FE N N E EZ-M SS NENNINGE
NT NI E N L UIZ E

K I N us , 2 I C 2 17
Tlf 337 7 USU IL

ERRAZ IN

Igeltzer tza

I rra

K I N us , I
T lf 337 2 7 r 3 5125
S ntu ■ M 2 2 5 5

NOAUA!ko LEHIAKETA

"ILEON"
musika cd-a





"MARTXAUNDI
4"
musika cd-a

Lehiaketan parte hartzen duten guztien artean sari zoragarri hau zozketatuko dugu

Zein egunetan pasako da Korrikaren 14. edizioa Usurbildik?

1) Martxoaren 14ean
2) Martxoaren 15ean
3) Martxoaren 16ean


Erantzunak bidaltzeko azken eguna: **MARTXOAK 11**
 Noaua! hamaboskaria, Bordaberri 3 Eguzkitzaldea, 20170 Usurbil (Gipuzkoa), Noaua! Kultur Elkarteko buzoian edo e-posta: erredakzioa@noaua.com

199. lehiaketako erantzuna:
 Zer ospatu zen otsailaren 8an herriko kaleetan zehar?
ANGULAREN EHORZKETA

Irabazlea **ERROMAN MANTEROLA** izan da.
 "Gipuzkoa zure esku" mahai jokoa+CD-ROMa eta "Erdi Aroa Euskal Herrian" CD-ROM interaktiboa irabazi ditu. Jaso ezazu saria Noaua!ko egoitzan. **ZORIONAK!**

Denborapasak !

Usurbilgo kalea (Soluzioa: 17. orrian)

	Sutondoa	▼		Hats	▼		Alderdi karlista	▼		Asiako estatua	▼		Pluralean, hizki baten izena
	Aurretiko			Rutenioa			Etimologi-an aditua			Animalia ur-lehortarra			
	HERRIKO KALEA	▶											
	Jorratua												
Berdea	▼		Musika nota	▶		Otx!	▶			Bizkaiko ibaia	▶		
Arrazakeria			Jainko egitoarra			Iparraldean izu				Infin., ordaindu			
												Potasioa	▶
												Putre	
Nafarroako herria	▶					Zakur	▶			Sufrea	▶		Moila, nasa
Egile atzizkia						Bete				Bokala			
			Deiak	▶									
			Barazki hostotsua										
Egun	▶					Begirada	▶			Kasik	▶		
Bizarra egiteko lekua						Istu				1. eta 3. bokalak			
												Iodoa	▶
												50	
Bokal errepikatua	▶			Urrea	▶		Inburua	▶					



Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
05.47*	06.03*	06.20*	06.08*	06.24*	06.39*
06.17*	06.33*	06.50*	06.38*	06.54*	07.09*
06.47*	07.03*	07.20*	07.08*	07.24*	07.39*
07.17	07.33	07.50	07.38*	07.54*	08.09*
07.47	08.03	08.20	08.08	08.24	08.39
08.17*	08.33*	08.50*	08.38*	08.54*	09.09*
08.47	09.03	09.20	09.08	09.24	09.39
09.52/		10.21/	10.05	10.24	10.39
10.17	10.33	10.50	11.08	11.24	11.39
10.47	11.03	11.22	11.22/		11.47/
11.51	12.05	12.20	12.08	12.24	12.39
12.17*	12.33*	12.50*	12.38*	12.54*	13.09*
12.47	13.03	13.20	13.08	13.24	13.39
13.17*	13.33*	13.50*	13.38*	13.54*	14.09*
13.47	14.03	14.20	14.08	14.24	14.39
14.17*	14.33*	14.50*	14.38*	14.54*	15.09*
14.47	15.03	15.20	15.08	15.24	15.39
15.17*	15.33*	15.50*	15.38*	15.54*	16.09*
15.47	16.03	16.20	16.08	16.24	16.39
16.17*	16.33*	16.50*	16.38*	16.54*	17.09*
16.47	17.03	17.20	17.08	17.24	17.39
17.17*	17.33*	17.50*	17.38*	17.54*	18.09*
17.47	18.03	18.20	18.08	18.24	18.39
18.17*	18.33*	18.50*	18.38*	18.54*	19.09*
18.47	19.03	19.20	19.08	19.24	19.39
19.17*	19.33*	19.50*	19.38*	19.54*	20.09*
19.47	20.03	20.20	20.08	20.24	20.39
20.21/		20.48/	21.08	21.24	21.39
20.47	21.03	21.20	22.07/		22.32/
21.47	22.03	22.20	22.38	22.54	23.09

* Astegunetan bakarrik / Zerbitzu berria, egunero

Oharra: urtarilaren 29tik martxoaren 9ra autobusez beteko da Usurbil-Amara arteko tren zerbitzua. Autobusa tren geltokitik irten eta tren geltokira iritsiko da.



Donostia	Urbil	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Urbil	Donostia
07.40		08.05	08.25	06.45	07.05	07.30	
08.00		08.25**		06.45	07.05	07.10	07.30
08.00	08.25	08.35	08.55	07.15	07.35	08.00	08.00
08.40	09.05	09.05	09.25	07.45	08.05	08.15	08.30
09.00	09.20	09.30		07.45	08.05	08.15	08.40
09.00	09.25	09.35	09.55	08.15	08.35	09.00	
09.40	10.05	10.05	10.25	08.45	09.05	09.30	
10.00	10.25	10.35	10.55	08.45	09.05	09.15	09.40
10.40	11.05	11.05	11.25	09.30	09.35	10.00	
11.00	11.25	11.35	11.55	09.45	10.05	10.30	
11.40	12.05	12.05		09.45**	10.05	10.15	10.40
12.00	12.20	12.25**		10.30	10.35	11.00	
12.00	12.25	12.35	12.55	10.45	11.05	11.30	
12.40	13.05	13.05	13.25	10.45	11.05	11.15	11.40
13.00	13.20	13.30		11.45	12.05	12.40	
13.00	13.25	13.35	13.55 #	11.45	12.05	12.15	12.40
13.40	14.05	14.05	14.25	12.45	13.05	13.30	
14.00	14.20	14.30**		12.45	13.05	13.15	13.40
14.00	14.25	14.35	14.55	13.30	13.35	13.55*	
14.40	15.05	15.05	15.25	13.45	14.05	14.30	
15.00	15.20	15.30		13.45	14.05	14.15	14.40
15.00	15.25	15.35	15.55	14.30	14.35	15.00	
15.40	16.05	16.05	16.25	14.45	15.05	15.30	
16.00	16.25	16.35	16.55	14.45	15.05	15.15	15.40
16.40	17.05	17.05	17.25	15.30	15.35	15.55*	
17.00	17.25	17.35	17.55	15.45	16.05	16.30	
17.40	18.05	18.05	18.25	15.45	16.05	16.15	16.40
18.00	18.20	18.30		16.30	16.35	17.00	
18.00	18.25	18.35	18.55	16.45	17.05	17.30	
18.40	19.05	19.05	19.25	16.45	17.05	17.15	17.40
19.00	19.20	19.25**		17.45	18.05	18.30	
19.00	19.25	19.35	19.55	17.45	18.05	18.15	18.40
19.40	20.05	20.05	20.25	18.45	19.05	19.30	
20.00	20.20	20.30	20.50	18.45	19.05	19.15	19.40
21.00	21.20	21.25	21.45	19.30	19.35	20.00	
21.00	21.25	21.35	21.55	19.45	20.05	20.30	
22.15	22.35	22.45	23.05	19.45	20.05	20.15	20.40
22.00	22.25	22.35	22.55	20.45	21.05	21.15	21.40
22.30	22.55	23.05	23.25	21.15	21.35	21.40	22.00
00:00	00:25	00:45		21.45	22.05	22.15	22.40
02:00	02:25	02:45		23.15	23.35	00:00	
04:00	04:25	04:45		01.15	01.35	02.00	
06:00	06:25	06:45		03.15	03.35	04.00	
				05.15	05.35	06.00	

**Aiaraino # Larunbatetan, Orion autobus aldaketa Aiarra

*Aiatak dator / Asteburutan
 ■ Soilik / Larunbat
 ■ Soilik / lanegunetan

Eguneko goardiako farmaziak

- Martxoak 4, ostirala
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte
- Martxoak 5, larunbata
De Miguel, Nagusia32 Lasarte
- Martxoak 6, igandea
De Miguel, Nagusia32 Lasarte
- Martxoak 7, astelehena
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte
- Martxoak 8, asteartea
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte
- Martxoak 9, asteazkena
De Miguel, Nagusia32 Lasarte
- Martxoak 10, osteguna
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte
- Martxoak 11, ostirala
Gil, Nagusia 24 Lasarte
- Martxoak 12, larunbata
Oa Kontzeju Zaharra 11 Usurbil
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte
- Martxoak 13, igandea
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte
- Martxoak 14, astelehena
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte
- Martxoak 15, asteartea
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte
- Martxoak 16, asteazkena
De Miguel, Nagusia32 Lasarte
- Martxoak 17, osteguna
De Miguel, Nagusia32 Lasarte
- Martxoak 18, ostirala
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte
- Martxoak 19, larunbata
Gil, Nagusia 24 Lasarte
- Martxoak 20, igandea
Gil, Nagusia 24 Lasarte

GAUEKO GOARDIAKO FARMAZIAK
Urte osoan, gaueko goardiako farmazia guztiak Hernanin egingo dira. Maria Jose Chucla, Kardaberaz Kalea 48, Hernani (943 55 17 93).

2005eko egutegi osoa noaua.com helbidean

Zubieta-Donostia TST autobusak

- ASTEGUNETAN**
Zubieta-Donostia
7:55*/ 9:30(T)/ 13:15(T)/ 14:35*(T)/ 19:15(T)
- Donostia-Zubieta**
(Gipuzkoa plazatik)
7:15* / 9:00/ 12:45(T)/ 13:45*/18:45
- LARUNBATETAN**
Zubieta-Donostia
8:15(T) / 12:45 / 15:15(T) / 21:35(T)
- Donostia-Zubieta**
(Gipuzkoa plazatik)
12:15(T) / 14:30(T) / 21:00(T)
- JAI EGUNETAN**
Zubieta-Donostia
11:25(T)/ 13:30(T)/ 15:30(T)/ 21:35 (T)
- Donostia-Zubieta**
(Gipuzkoa plazatik)
11:00(T)/ 13:00(T)/ 15:00(T)/ 21:00 (T)

* Eskola egunetan
 T Autobus aldaketa beharrezkoa da. 943 361740.

Datorren NOAUA!

Martxo						
As.	Ar.	Az.	Os.	La.	Ig.	
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

Hurrengo alca ●

Bai esan?

- Udala..... 37 19 51
- Udaltzaingoa 36 11 12
- Obrak eta Zerbitzuak.... 37 01 48
- Anbulategia..... 36 20 13
- Udarregi ikastola..... 36 12 16
- Udarregi (Agerialde) 36 38 95
- Oiardo kiroldedia 37 24 98
- Zumarte 37 15 94
- Etumeta 37 20 01
- Taxi geltokia 36 21 78
- D.Y.A. 46 46 22
- Ertzantza..... 112
- Suhiltzaileak..... 112
- Larrialdia..... 112
- Anbulantziak..... 112
- Gure Pakea..... 37 32 28
- Gure Elkarte..... 37 17 51
- Arrate Egoitza..... 36 63 40
- Eusko Tren 47 09 76
- Noaua! aldizkaria..... 36 03 21
- Bake epaitegia..... 37 23 36
- Oa farmazia..... 37 60 76
- Iturralde farmazia..... 36 33 95
- Zubietako Batzarra 37 20 77
- Argindarra (Iberduero) . 47 09 76

Oharrak !

ETXEBIZITZA

-Usurbil edo inguruetan pisua errentan hartuko genuke. Tf: 645722874.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Baserriko babarrunak saltzen dira. Kiloa 10 euro. 600901150.
- Garaje bat daukat alokairuan jartzeko Kale Nagusian (Bizkarreko etxeetan) 240eurotan. 100m2takoa da eta kotxea erraz sartzzen da. 943458284.
- Ford Fiesta salgai. Diesel 1.8, SS-AV. Egoera onean. 637 135 088.
- Aparkalekuak daukat salgai prezio oso onean Bizkarra 1-8 etxe taldean, Kale Nagusia 3 zbk. 607905859 (Imanol).
- Honda Dominator 650 cc motorra egoera oso onean. 667 172010 (Jon).

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Kamarera euskaldun bat eskaintzen da astelehenerik ostiralera lan egiteko. 667694469.
- Emakume bat eskaintzen da astelehenerik ostiralera, pertsona helduak edo ezinduak zaintzeko. Horrelako lanetan aritua. 626641155 Mariaje.
- Taberna batean egingo nuke lan edo antzeko zerbaitetan. 652 757 495.
- Portalak eta eskilerak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. Interesatuak deitu 690 784 113 telefono zenbakira.
- Oporretako, ospakizunetako, edota edozein motatako bideak montatzen dituen profesionala eskaintzen da. Informazio gehiago nahi izan ezker deitu 943- 555835 edota 617-242660 telefonora.

Lan-eskaintzak

- Orioko ileapaindegi batean estezizista bat behar da. Interesatuak deitu 943832729.
- Astelehenerik ostiralera, eguerditan pertsona bat behar dugu Antxeta jatetxean lan egiteko. Interesatuak deitu 943370344 telefonora.
- Usurbilen taberna bat traspasatzen da. 620 259 672.
- Ikastolen Elkarteak uztailean burutuko diren euskal, ingeles eta frantses udalekuearako begiraleak behar ditu. Beharrezkoa: 18 urte beteta izatea, euskara menperatzea eta begirale titulua izatea. Izen emate epea: martxoak 11. Non: Ikastolen Elkarteak, 94 4354340 /www.biekastola.net.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Errepide ondoko autobus geltokian Karpeta txuri bat galdu dut. "AULAS KUTXA" hitzak ditu azalean. Aurkitu duenak deitu 943364733 zenbakira.
- Ekonomia sukalde bat saltzen da (labea ere badu). 6 urte ditu, ondo zaindua. Prezioa negoziatuko da. 617242660 / 943361751 (Nerea).
- Bideokamara bat saltzen dut, Canon XL1 semiprofesionala, bateria eta tripodeta barne. Gutxi erabilia berria dago. 943376902 - 665749615 gauze.
- Kanping-karroa salgai, aluminiozko panelarekin. Karabana bihurtzen da. 943 55 18 32.
- Pago egur txikitua eta lehorra salgai. Etxera eramaten da. Tf. 615755762
- Astean zehar eski-begirale izateko jendea behar du Ikastolen Elkarteak. 943444702.

Txerrimunik ordainetan !

JAIOTZAK

- Julen Begiristain Zuriarrain Otsailaren 14an.
- Aitor Martin Barragan Otsailaren 16an.

Informazio iturria: Usurbilgo Bake Epaitegia

Oharrak - Txerrimunik ordainetan doaneko atalak dira

NOAUA! Kultur Elkarteak - Borda Berri, 3
Eguzkitzaldea 20170 Usurbil
erredakzioa@noaua.com

Zorionak bikote!

Amak hilaren 2an eta Nagorek 7an egingo dituzte urteak. Muxu handi bat eta egun on bat pasa famili guztiaren partetik.



Denborapasak !

	⊛	S	⊛	A	⊛	E	⊛	I	⊛
	A	U	R	R	E	K	A	R	I
	⊛	P	U	N	T	A	P	A	X
⊛	O	⊛	L	A	⊛	A	I	⊛	O
A	R	R	A	Z	I	S	M	O	A
⊛	L	A	N	T	Z	⊛	O	R	⊛
L	E	⊛	D	E	I	A	L	D	I
⊛	G	A	U	R	⊛	S	O	A	⊛
B	I	Z	A	R	T	E	G	I	A
⊛	A	A	⊛	A	U	⊛	O	N	I

PATRI
JATETXEA
- Eguneroko menuak
- Plater konbinatuak
- Ogintzetak
Telf: 943 36 27 25
Kale Nagusia, 14

txirriStra
TABERNA
- Plater konbinatuak
- Ogintzetak
- Pintxoak
Kontseju zaharra, 13
Telf: 943 36 04 66

Zendoia
Kale Nagusia 35 - 943 37 40 71

TXIRIBOGA
TABERNA
ntx k, k t k
t l t r k n n t u k
Irazu kalea, 3 Telf: 943 36 13 98

MAHUKA
G z n t m k u m z k n
m k r r u z t
h m n u r k t u k u z u
Etx st k l , 3
Tlf 33 11

Euskarazko karta, mesedez

Euskaraz eskatzeko ohitura zabaltzeko, euskaraz eskaintze-ko ohitura ere sustatu behar da. Eta alderantziz. Eskatzeko eskaini, eskaintzeko eskatu. Joan-etorriko konpromiso hori indartzera dator Buruntzaldeko udalek argitaratu duten liburuxka, "Buruntzaldeko Jatetxeen Gida 2005" izenekoa. 112 jatetxeren datu praktikoak bildu dira eta, guztira, 25.800 ale izango dira banatuko direnak. Herritarrek euskaraz eskatzeko joera har dezaten; jatetxeak behar horretara egokitu daitezten.

Euskararen erabilera alor eta maila guztietara zabaltzeko ahaleginean dihardute Buruntzaldeko udalak. Baina erantzunkizuna guztiona da. Horregatik, euskararen alde ahalik eta indar gehien batu asmoz, funtsezkoa da eragile, erakunde eta talde ezberdinen arteko elkarlana sustatzea. Horren adibide argia, hizpide dugun argitalpena izan daiteke: "Buruntzaldeko Jatetxeen Gida 2005".

Menua euskaraz edo elebrietan duten jatetxeen gida berri honetan, Buruntzaldekoak bakarrik bildu dira: Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo herrietan

kokaturik dauden jatetxe gehienak.

Jatetxeen erantzuna, ona

Gidan bildu diren jatetxeei konpromiso txiki bat hartzea eskatu zaie: idatzizko karta guztiak, gutxienez, bietara jartzea eta aldaketak egiten direnean ere, irizpide hori mantentzeko konpromisoa hartzea.

Orokorrean, jatetxe jabeek oso harrera ona egin diote gidari. Batzuk, aspalditik zebiltzan kartak aldatu nahian, euskaraz ere jartzekotan; eta gidak, zentzu horretan, akuilu lana egin du. Aldiz, jadanik karta euskaratuta zutenentzat, gida sari baten modukoa izan da, egindako ahaleginarekin bat datorren ekimena.

Herrietako mapekin osatua

"Buruntzaldeko Jatetxeen Gida 2005" liburuxkak 112 jatetxe bildu ditu. Usurbilen, zehazki, 29 izan dira gidaren ekimenarekin bat egin duten jatetxeak. Argitaratu diren aleak, guztira, 25.800 izango dira. Usurbilen, horietako 2.500 ale banatuko dira.

Esan dugu. Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo jatetxeak biltzen ditu gidak. Bide batez, Buruntzaldeko bailara



BURUNTZALDEKO UDALEK ARGITARATU DUTE JATETXEEN GIDA.

osetzen duten herrien mapak ere jaso dira. Ez hori bakarrik. Jatetxeen datu praktikoak topatuko ditu gida eskuratzen duenak: jatetxearen izena, helbidea eta telefonoa; jatetxearen eskaintza eta bestelako datu interesgarriak (jaieguna, oporrak, bestelako oharrak).

Euskara eskolak zerbitzarientzat

Buruntzaldeko udalen ahalegina, ordea, ez da gida argitaratzera mugatu. Honakoan, jatetxeetako profesionalei hizkuntza-ohitura eta hizkuntza-gaitasuna hobetzeko aukera eskaini zaie. Jendaurreko zerbitzariei euskara eskolak eskainiko zaizkie Buruntzaldeko euskaltegietan.

Edorta Agirre: "Elikagaien arloan parte hartzen dutenek ez daukate kontzientzia argirik euskararen inguruan"

Edorta Agirreren lezioak larunbatero topatuko dituzue Berrian, "Tartea" gehigarriko gastronomia orrietan. Duela 20 urte, errezeta liburu bat plazaratu zuenetik hona, gastronomia eta euskara lotzen lan handia egin du. Horren adibide argiak dira "Almanaka 2003, ase eta gose" eta "Bakailaoa" liburuak. Zubietako aditu honen esanetan, "oso gutxi ausartu dira etiketa, karta, prospektua, argibideak... euskara hutsez edo euskaraz ere jartzera". Zentzu horretan, hizpide dugun Jatetxeen Gida aurrerapausotzat har daiteke.

NOAUA!. Euskarak nolako presentzia du jatetxeen eta gastronomiaren alorrean?

Edorta Agirre. Elikagaien hiru faseetan parte hartzen dutenek normalean ez

daukate kontzientzia argirik euskararen inguruan: produkzio (arrantzale, nekazari, artzain, eltze eta ontzien fabrikatzaile), transformazio (sukaldari, catering alorreko enpresari, kontserbagile) eta kontsumo munduko protagonistak (nutrizionista, gastronomo, dendari, bromatologo, somelier, enologo, liburugile, kazetari, kritikiko) erdaldun edo erdaltzale dira, eskuarki. Oso gutxi ausartu dira etiketa, karta, prospektua, argibideak... euskara hutsez edo euskaraz ere jartzera. Horietako batzuek nahiago omen dute sos horiek aurreztu eta Espainiako erreginak datozenean gastatzea, horrelakoetan merezi omen du eta. Administrazioak ere gutxi-gutxi egin du, edo batez ere, hau da, euskaldunon kontra arituz, euskaldunoi iruzur egin digu, argi eta garbi. Enpresariak fron-



toian utzi ditu I+D alorreko fondoak. Eta herritar xeheak ez ditu ahaleginak egin orain arte bere eskubideak eskatzeko unean ere. Presentzia, beraz, norberaren militantziak agindutakoa da, baina hutsaren hurrengo, gehienbat. Lotsagarria eta amorragarria, alegia.

Elkarrizketa, oso-osorik, www.noaua.com orrialdean (200 alea atalean barrena).

J
a
t
e
t
x
e
e
n
G
i
d
a



Eska ezazu **EUSKARAKO** MENUA



ORAIN, HAR EZAZU HITZA ZUK ZEUK ETA ON DAGIZULA!

EGIN TXOTX! SAGARDOTEGI GARAIAN

Zain duzu aurtengo sagardoa, Txotx!

SaiZAR
Sagardotegia

Kale-zahar Auzoa, 39
48100
ESURBIL
GILPUZKOA
Tel. 943 362 228
WWW.sidrassaizar.com

Txotxetik irten zera kristal fiñ garbira, saltatu dezu illun betikan argira; atoz ederra, atoz, gauzkatzu begira, eragiteko baso zaudenari jira.

Ramon Artola. "Sagardoaren grazia eta beste bertso asko"



Urtarrilaren 14 tik irekita!

Txotxetik sagardoa jarraitu usadioa!

Santuenea,
Telf: 943 36 50 31
Mobila: 670 02 77 31



SAGARDOTEGIA

**ASTIAZARAN
SAGARDOTEGIA
IRULIN**

Betidanik hemen denon etxetik gertu.

Urtarrilaren 7 an irekiko da.

Telf: 943 36 12 29